

Olentzero agurgarria:

Bai, bazekiat harroputz galanta dirudidala neure burua agurgarriaz joz, dena dela, nire bizitzako une honetan ez zaidak inolako ardurarik ematen. Dagoeneko, gizon adintsua nauk eta bizi izan dudana bizitza, zakarrenetik zakarrena dela esan zezakeat, beraz, autoestimua izatea ez duk desegokia.

Jadanik ezagutzen diat nire istorioa, izan ere, neure buruaz gupida nauk, inori onetsiko ez diodan arren. Patetikoa neritzoan nire bizitzari urte luzez; nolana ere, denbora pasa ahala jasandako egoerek gehiago tristatzen naitek lotsatu baino. Harrigarria duk zein laster pasa den denbora, oraindik gogoratzen diat nola haurtzaroan auzoko umeek nitaz trufatu egiten ziren familia txiroa izateagatik. Aita ikazkina zuan eta amak ni munduratu bezain pronto hil zuan. Askoren arabera, ni familia egoera horrengatik berezia baino bereziago ninduan eta ondorioz, lagunik gabeko haurtzaroa pasa nian. Betidanik entzun diat ametsik gabeko bizitza izarrik gabeko gau bat dela eta egia duk. Umeak aski krudelak izan zituan frankotan nirekin arestian eta tamalez, jakin banekian haiek horrelakorik ez balizkidate egin, egun ez nintzatekeela bakar sentituko.

Berez, nik uste diat, edo espero diat, pertsona ona naizela, edozein modutan ere, ezinezkoa da niretzat mendekua ez hartzea. Nabardura gisa esan beharra diat ez dudala apropos egiten. Azken urteotan bakarrik maitatu naitek Jesusen jaiotza ikusi bainuen garai batean. Bere jaiotza ikusteagatik hainbat botere aitortu zizkidatean, haatik, ikusi izan ez banu ez zizkidaketen inolako eskubiderik emango. Hitz gutxitan, lehen bezala tratatuko nindiketeen. Halatan, ume onak saritzen ditiat opariekin eta aitzitik, bihurrei ikatza urtero ematen zieat nire haurtzaroko egoera gogorarazten didatelako. Nire jomuga ez duk neska-mutilak punitzea, baizik eta, herritar onak direla baieztatzea eta bermatzea etorkizunari begira, behintzat horrela justifikatzen zioat nire buruari urteetan eginikoa.

Nere bizitzako hausnarketa egin eta gero, erabaki diat nire buruaz beste egitea. Ez zegok honela bizitzerik. Hau ez duk otoi otoi erabakia, dena dela, kakati hutsa nauk eta biharamunera arte itzarongo diat, apika, iritziz aldatuko baitut. Ziur aski nire burua hilko dudanez, gutun hau irakurtzen duenari esan nahi diot, jadanik badakidala berriak hautsak harrotuko dituela, edozein modutan ere, nire ekintzen erantzule naiz eta karguaren premua Ramón Garateri lagako diot.

Nire gorpua aurkitzen duen pertsonari esan nahi diot nitaz ez urrikitzeko. Denok dakigu norbait hiltzen denean kontua denon ahotan egoten dela, erranak erran, ez da nire xedea anabasa suertatzea nire heriotza dela eta, are gehiago, norbera bere bizitzarekin berdin jarraitzea nahiko nuke, ez baitut jasango behin hilda nagoenean maitasun gehiago jasotzea, bizirik nengoenean baino.

Agur bero bat,  
Olentzero